


Nº 5. ZB // DICIEMBRE 2020 ABENDUA

BULETINA EL BOLETÍN

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA/FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y
TRABAJO SOCIAL



oman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL



02 Dekanoaren agurra

Edukiak

- 03 "UPV/EHUko ikasleen III. biltzarra Gure Gradu Amaierako Lanek (GRAL) mundua aldatzeko balio dute" jardunaldian parte hartu duten Fakultateko ikasleei elkarrizketa
- 08 *Thomson Reuters Aranzadi* argitaletxeak ikuskapenari buruzko liburu bat argitaratu du, Fakultateko Gizarte Langintza arloko ikertzaileek koordinatuta
- 10 *Lan Harremanak* aldizkariak ale monografiko bat argitaratu du enpleguaren eta gizarteratzearen arteko harremanei buruz, CIVERSITY ikerketa taldearekin lankidetzan
- 12 Fakultateko jardunaldiak eta hitzaldiak
- 15 Ikasgela berriak Fakultateko Arabako atalean

DEKANOAREN AGURRA

2

Buletin berri hau urte benetan zaila amaitzear dagoenean argitaratu da. Urte honetan, norberaren onena atera behar izan dugu eta une honetan, etorkizunera itxaropenez begiratzeko aukera daukagu. Nolanahi ere, egia da gure fakultateko lemak, "Berdintasunaren eta aberastasunaren banaketa zuzenaren alde", inoiz baino indar handiagoa dauka orain; izan ere, pertsona asko ari dira gaizki pasatzen, eta, beraz, inor atzean utziko ez duten gizarte eta ekonomia politikak behar dira. Horretarako, gizarte babesa indartu eta hobetu behar da, gizarte eskubideak hobetuz eta unibertsalizatuz. Helburu hori izan behar dugu gure unibertsitatean ere. Eva Ferreira aukeratu berri dugu errektore berri eta gure fakultatearen organo ordezkagarrienak (Fakultateko Batzarra, Ataleko Batzarra eta Egoitza Batzordea) osatuko dituzten pertsona taldea berritu dugu. Oraingoan ere buletin honetan parte hartzera animatu nahi zaitut, eta hobekuntza iradokizunak eta hurrengo argitalpenetarako edukien ideiak bidaltzera. Azkenik, Amaia Inza dekanordeari eskerrak eman nahi dizkiot, Javier Cerratorek kargua hartu baitu, buletin hau egiteko koordinatzeko eta lantzeko egindako ahalegin eta trebetasunagatik.

Angel Elías Ortega

"UPV/EHUko ikasleen III. biltzarra Gure Gradu Amaierako Lanek (GRAL) mundua aldatzeko balio dute" jardunaldian parte hartu duten Fakultateko ikasleei elkarrizketa

3

Urriaren 22an, ostegunean, hiru campusetan aldi berean egin "UPV/EHUko ikasleen III. biltzarra. Gure Gradu Amaierako Lanek (GRAL) mundua aldatzeko balio dute" jardunaldia. Biltzar hori abagune ezin hobea da ikasleek ikasturtean egindako ikerketa lanak ezagutarazteko. Ikasleek, hain zuzen, lan horietan islatzen dituzte graduako lau urteetan pilatutako ahalegin, jakintza eta esperientziak. GRALak inguruko gizartea, ingurumena eta ekonomia eraldatzen laguntzen dute, eta horri esker, bizi garen gizarteak eman dienaren zati bat itzultzen diote.

Biltzarrean parte hartzeko aukeratutako lanen artean daude honako hauenak: Paula Da Silva Vareiro, Andoni Sánchez González, Itsaso Lorenzo Llona eta Jessica Mella Roldán. Esperientzia nola bizi izan duten galdetu diegu.

PAULA DA SILVA VAREIRO (Gizarte Langintzako Gradua)

Zein da zure Gradu Amaierako Lanaren gaia?

Nire Gradu Amaierako Lanaren izena "Menores en situación de desprotección de la Comunidad Autónoma del País Vasco y su paso a la mayoría de edad" da. Lana gogo handiarekin egin duen, adingabeen gaiak beti bereganatu izan duelako nire arreta. Gainera, asko lagundu zidan gaia bideratzen etxegabeentzako harrera zentro batean ("Gaztelutxo") praktikak egiteak, adin nagusitasuna bete berri zuten pertsona oso gazteekin lan egin bainuen. Adingabeen babesgabetasunak pertsonen gizarte bazterketako arriskuan duen intzidentzia ezagutzeko ikerketa lan bat egitera animatu nitzen; horri zor zaio nire azterketaren zati handi bat kolektibo horren helduarorako eraldaketari buruzkoa izatea.

Nolakoa izan da lanaren prozesua?

Prozesua ona izan da. Gradu Amaierako Lana egiteko unea iristeren beldur izaten gara beti. Hala ere, gakoa da asko motibatzen zaituen gai bat aukeratzea eta ezagutzen ez duzunera, kezkatzen zaituenera eta ikertu nahi duzunera bideratzea. Horrela bilakatu dut GRALa, denek beldur dioten lana, esperientzia atsegina bihurtzea. Askok eman dit

prestakuntza maila eta maila pertsonalean. Jakina, lanaren tutoretza egin duen pertsonarekin duzun harremana ere garrantzitsua da, babesa izatea ezer argirik ikusten ez den uneetan, lanean jarraitu ahal izateko.

Zerk animatu zintuen Kongresura aurkeztera?

Nire Gradu Amaierako Lana hastean, nire tutoreak buruan zeukan nire lana ezagutarazteko aukera oro onuragarria izango zela niretzat. Horrenbestez, bera izan da prozesuan aukera gehien eman dizkidan pertsonetako bat, GRALa egiteko unean soilik ez, baita ondoren ere. Gaur egun, harremanetan gaude oraindik eta ateratzen den ikaskuntza eta trebakuntza aukera guztietan kontuan izaten nau. Biltzarrean parte hartzeko ideia tutoreak eman zidan, eta onartu egin zuen, hark lagunduta, betiere.

Nolakoa izan da esperientzia?

Zalantzarik gabe, esperientzia oso ona izan da. Hasieran, beti bezala, biltzar batean hizlari gisa parte hartzen den lehen aldiko nerbioak izan nituen, baina zure lana segurtasunez azaltzen duzunean eta besteei onartzen dutela ikustean, eroso sentitzen zara. Esperientzia berriro errepikatuko nuke eta ikasle guztiak animatu nahi ditut aurkeztera.

ANDONI SÁNCHEZ GONZÁLEZ (Gizarte Langintzako Gradua)

Zein da zure Gradu Amaierako Lanaren gaia?

Nire GRALean adinekoen bakardadea eta horiek komunitatean sartzea landu nuen. Gaia aztertzen hasi nintzenean ikusi nuen gizarte arazo hori ikuspegi oso indibidualista eta psikologikotik interpretatzen dela. Pertsona horietako asko komunitatean bizi direnez, eta horixe denez haiengandik hurbilen dagoen gizarte eragilea, galdera hau egin nuen: Zer egin dezake komunitateak komunitaterako gizarte langintzaren ikuspegia sartzeko?

Nolakoa izan da lanaren prozesua?

Ikerketa bat hutsetik egiteko prozesuak buruhauste asko ematen ditu, ez baita prozesu lineala, eta lan egiten dugun kolektibo edo pertsonen baldintzetara egokitu behar baitugu. Horren erakusgarri da, adibidez, COVID-19aren pandemiak arlo horretan nola

eragin duen. Nire kasuan, adinekoak gainerako kolektiboak baino gehiago isolatu behar izan dira, eta nire jatorrizko ideiatik amaierako emaitzara asko aldatu da. Hala ere, oso gustura nago emaitzarekin. Izan ere, nire inguruko jendeari esker GRALa amaitu ahal izan nuen, eta uste baino ondorio sakonagoak atera nituen.

Zerk animatu zintuen Kongresura aurkeztera?

Itxasok eta nik interes handia izan dugu beti ikerketan, eta unibertsitateak gure lanak (maitasun handia diegu) biltzar batera aurkezteko aukera ematen zigula ikusi genuenean, ez genuen bitan pentsatu. Bestalde, unibertsitatearen barruan aukera berriak ezagutzeko abagune bat da, eta ikasle izan garen urteetan ikasitakoa itzultzeko modu bat da.

Nolakoa izan da esperientzia?

Esperientzia itzela izan da. Lana aurkezteko sei minutu soilik izan arren, moderatzaileen eta bertaratutakoren baten eskutik jasotako feedbacka oso motibatzailea izan da, eta ikergai horrekin jarraitzera animatu ninduen. Egia da hasieran beldurtu egin nintzela pixka bat, ekitaldi horietan publiko gisa parte hartu ohi baitugu, baina nire azalpenarekin aurrera egin ahala, erosoago sentitu nintzen.

ITSASO LORENZO LLONA (Gizarte Langintzako Gradua)

Zein da zure Gradu Amaierako Lanaren gaia?

Nire Gradu Amaierako Lana Maskulinitateei eta gizon taldeei Gizarte Langintza feministatik egindako hurbilpen bat da. Zehazki, Bizkaiko gizon-taldeen kasua aztertzen duena. Kasu honetan, GrAL-a ikerketa batean oinarritzen da, maskulinitateen gaia jendartean berria dena, Gizarte Langintzaren ikuspuntutik ikertzea, are gehiago, Gizarte Langintza feministatik. Aipatu behar dut, gaur egun oraindik gizona ez dela Gizarte Langintzaren barruan esku-hartu beharreko subjektu aktibo bezala kontuan hartzen. Generoa emakumeei soilik atxikitzen zaien kontzeptu bat da. Gizonek ere generoa dute. Gainera, Bizkaia mailari dagokionez, feminismoaren ideologia jarraitzen duten gizon-talde ez mistoak existitzen dira, ikerketa honek gizon-talde horiei ahotsa ematen die.

Nolakoa izan da lanaren prozesua?

Lan honek emakume eta pertsona bezala ahaldundu nau. Nire burua feministatzat hartzen dut, hala ere, feminismoaren ideologian pausu bat haratago eman nahi nuen. Giro pertsonalean behin eta berriz nire buruari galdetzen nion zergatik feminismoak egindako lanarekin gaur egun oraindik ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortu. Gainera, feminismoarekin zerikusia zuten eztabaidak ateratzen zirenen, nire inguruko gizonak haserretuta edo galduta agertzen ziren gaiaren aurrean. Honek nire motibazioa piztu zuen maskulinitateen gaian sakontzeko. Erantzunik ez zeukaten galderei norabide bat aurkitzeko helburuarekin.

Zerk animatu zintuen Kongresura aurkeztera?

Gradu Amaierako Lana ez da edozein lana. Urte osoko indarrak, motibazioak, nahiak, kezkak, desioak eta milaka sententzioz beteriko lan bat da. Nire kasuan, Edurne Aranguren zuzendariak, profesional paregabea dena eta Gizarte Langintza maitatzen duenak, hasieratik motibatu ninduen lana publikatzeko. Horregatik, EHUk antolatzen zuen III. Biltzarrerara aurkeztea ideia paregabea iruditu zitzaidan nire lana ezagutzera emateko. Lehenengo aldia zenez, Andoni Sanchez aurten ni bezala Gizarte Langintzan graduatutako ikasleari elkarrekin esperientzia berria bizitzea proposatu nion. Horrela biok aurkeztu egin ginen.

Nolakoa izan da esperientzia?

Lehenengo aldia izateko, hasiera batean urduritasuna sentiarazi nuen, hala ere, Andoni Sanchez laguna nire ondoan une orotan egon zen, honek errazago egin zuen. Covid-19aren ondorioz, gure publikoa murrizta zen. Faktore honek erraztasun puntu bat gehitu zion egoerari. Hala ere, Gradu Amaierako lana aurkezteko unea heldu zenean, nire barruko ahotsari ateratzea utzi nion eta urte osoan zehar landutakoa askatu egin nuen. Arro eta seguru sentitu nintzen, etorkizun batean errepikatzeko gogoekin.

JESSICA MELLA ROLDÁN (Gizarte Langintzako Gradua)

Zein da zure Gradu Amaierako Lanaren gaia?

Haurren sexu abusua eta esplotazioa pertsonen sexu askatasun eta sexu ukigabetasunaren aurkako delituak dira. Gaur egun, biztanlerian, oro har, ez dago

prebentziorik eta inplikaziorik arazo mota horretan; horrenbestez, gizarte ikerketa mota hauen bidez azpimarratu behar da haurren aurkako indarkeria inoiz ez dela onartu eta isildu behar dioen kontzientziazioa sustatzea gizartean, haurrenganako tratatu txarretan esku hartzen duten diziplinetatik, besteak beste gizarte langintzatik.

Nolakoa izan da lanaren prozesua?

Lan prozesua oso atsegina izan da. Onartu beharra daukat une askotan dena zailtzen dela eta, are gehiago, bizi dugun egoera honetan. Batzuetan, urduritu egin naiz edo arreta jartzea eta inspirazioa hartzea gehiago kostatu zait, baina, oro har, lan honek norbere burua gehiago ezagutzeko aukera ematen dizu, hobeto nola antolatu jakiteko, aurkitutako informazio guztitik zer aukeratu erabakitzeke... Prozesu luzea da, baina emaitza ikusten duzunean, oso harro sentitzen zara egin duzun lanagatik.

Zerk animatu zintuen Kongresura aurkeztera?

Biltzarra nire GRALeko zuzendariari esker ezagutu nuen. Pertsona horrek animatzen nau beti ekitaldi mota horietan parte hartzera. Biltzarraren oinarriak irakurri ondoren erabaki nuen aurkeztea, uste dudalako esperientzia eta aukera paregabea dela urtebetez egin duzun ahalegin guztia azaltzeko, zure lana ezagutarazteko eta Agenda 2030 egitasmoko helburuei neure ekarpen txoa egiteko.

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso urduri egon arren, nire buruaz oso harro sentitu nintzen, soil-soilik parte hartzeagatik. Ikaskide askok egin dituzten lan bikainak ikusteko aukera ere baduzu. Lana amaitutakoan sentitu nuen nire helburua bete nuela, baina, egiari zor, ekitaldi akademiko mota horretan parte hartu ahal izateak, nire kasuan, Gizarte Langintzako profesionala nintzela sentitu nuen eta laster ekingo niola nire ibilbide profesionalari diziplina hain eder honetan.

Thomson Reuters Aranzadi argitaletxeak ikuskapenari buruzko liburu bat argitaratu du, Fakultateko Gizarte Langintza arloko ikertzaileek koordinatuta.



Obra hori Ainhoa Berasaluzek, Miren Ariñok, Charo Ovejasek eta Maddalen Epeldek koordinatu dute. Horren bidez, 2018tik 2020ra bitartean 15 hilabetez egindako ikerketaren kokapen epistemologikoa, ikuspegi metodologikoa, ikuskapen prozesuak eta ondorio nagusiak bildu nahi izan dira. Ikerketak Vital Fundazioaren eta UPV/EHUko Parte-Hartuz ikerketa taldearen laguntza jaso du.

Hori irakurrita, hiru alderdi nabarmendu behar dira, irakurlearen interesaren arabera: IEPI eredua, gainbegiraturako egoerak eta sortutako ezagutza berriak.

IEPI ereduak (ikerketa-ekintza-partaidetza-gainbegiraketa), ikerketa-ekintza metodologia berritzailea eskaintzen du gizarte langintzarako, ikuskapenean oinarrituta IEPen modalitate gisa. Ikerketa-ekintza-partaidetzako modalitate metodologiko gisa ikuskapenaren alde egitea aukera teoriko-metodologikoa da; izan ere, inplikaturako pertsonak beren ezagutzak eraikitzea du helburu, praxi profesionalean oinarritutako eta gizartearen errealitatera aplikaturako hausnarketa prozesu baten bidez, aldaketak sortzeko. Jarduneko profesionalek eta ikuskapenaz arduratu diren irakasleek osaturako ikerketa talde misto baten bidez, ezagutza kolektiboa lortzea erraztu da, lankidetzak aktiboaren eta horizontaltasunaren bidez. Horrela, prestakuntza eta ekintza profesionala hobetu da, eta, beraz, gizarte ekintza optimizatu da berdintasun eta justizia sozial handiagoa lortzeko erantzun dezan. Teresa Aragonésekin honako hau dio obraren hitzaurrean: gaur inoiz baino gehiago, gure gizarteetan, akademian eta mundu profesionalean eragiten duten aldaketa sozial, teknologiko, politiko eta ekonomiko sakonen aurrean, elkarlaneko esperientziak behar dira.

Nabarmendu beharreko bigarren alderdia, ez delako ohikoa horrelako edukiak dituen idatziak topatzea, honako hau da: ikuskapen saioetan sortutako egoerak, idazleek IEPI ereduaren prozesu kritiko-erreflexibo osoaren bidez birsortu dutena. Ikerketa taldeko kide izan diren gizarte langintzako profesionalek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako lehen mailako arretan egiten dute lan, eta, haien postutik, konpromisoa hartu dute eta prest egon dira beren zereginari buruz berriz hausnartzeko, hori azaltzeko eta beren lankideen aurrean eta horiekin batera aurkezteko. Horrela, "Voces en supervisión" epigrafepean, profesionalek bizitako zortzi benetako egoera jasotzen dira, ikerketaren esparruan ikuskatuak. Gainera, egoera horiek profesionalek berek idatzi dituzte, horrek dakarren izaera pertsonal eta biziarekin.

Hirugarrenik eta azkenik, erreferentzia egin behar zaie ikerketaren ondorio nagusiei edo sortutako ezagutza berriei. Ikerketaren helburua honako hau zen: gizarte langintzako praxi profesionala hobetzea lehen mailako gizarte zerbitzuen testuinguruan. Horretarako, zailtasunak identifikatu dira prozesuan zehar (ikuspegi protekzionistako gizarte politikak, burokratizazioa, gizarte langintza gizarte zerbitzuen sistemara asimilatzea, agindu instituzionalaren eta aukera profesionalaren arteko aldeak, *burnout* delakoa, erreferente teorikoen erabilera eskasa, gatazka etikoak, etab.) eta ekintzarako estrategia lerroak egin dira, hala nola: lan komunitarioa berreskuratzea, administrazio prozedurak sinplifikatzea, marko teoriko-metodologikoak eratzea, identitate profesionala indartzea, hausnarketarako eta trukerako guneak sortzea, etab.

Baina, emaitzez haratago, ikerketa prozesu hau esperientzia eraldatzailea izan da bertan parte hartzeko aukera izan dutenentzat. Horixe dio pertsona horietako batek.


Ikuskapen prozesua oso esperientzia aberasgarria izan da nire praxi profesionalerako. Aukera eman dit ikuspuntu zabalagoa izateko eta nire lanean esku hartzen eta haren barnean dauden ardatzei buruz hausnartzeko. Horrez gain, esku hartzeko alderdi batzuk hobetzen lagundu dit (...) eta egoerak modu globalagoan aztertzen; izan ere, beste modu batean hautemateko zailak izango liratekeen praxi profesionalaren zailtasunak identifikatu, zabaldu eta, batzuetan, ebatzi ahal izan ditut.

Lan Harremanak aldizkariak enpleguaren eta gizarteratzearen arteko harremanei buruzko monografiko bat argitaratu du, CIVERSITY ikerketa taldearekin lankidetzan

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen **LAN HARREMANAK** aldizkariaren 43. zenbakia argitaratu berri da, "Enplegua eta gizarteratzearen arteko harremanak (eraldaketak eta etorkizuneko erronkak)" monografikoa. Ale hau fakultateak **CIVERSITY: Ciudad y Diversidad** ikerketa taldearekin izandako lankidetzaren emaitza da. «Gizarte Kohesio Aktiboa» [CSO2015-70085-R. MINECOFEDER] ikerketa proiektuaren esparruan dago eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak eta Lurralde Garapenerako Europako Funtsak finantzatu du. Horri esker, ale monografiko hau argitaratu eta egituratu da, bai ohiko modu digitalean bai inprimatutako formatuan.

Proiektu honen helburua da gurea bezalako gizarteetako pertsonen enplegua eta integrazio sozioekonomikorako baldintza orokorrak sakonki eraldatu dituzten, eta etorkizun hurbilean oraindik gehiago eraldatuko dituzten, bi prozesuen analisi lotuan sakontzea. Egitasmoaren oinarritzko helburua orokorrean elkarren ondoan dauden edo, gutxienez, behar besteko harremana ez duten bi analisi lotzea da: Europako ongizate erregimenen eraldaketak aztertzea, enplegurako aktibazioa nagusi bihurtzen duen **workfare** eredurantz gero eta bateratuago daudela adierazten dutenak, eta enpleguaren gizarte arauaren eraldaketak aztertzea (egonkortasunetik malgutasunera).

Lanaren eta gizarte ongizatearen arteko harremanaren testuinguru berean, azken hilabeteetan SARS-CoV-2 birusak eragindako pandemiak eta horren ondoriozko konfinamenduak eragin nabarmena izan dute gure eguneroko bizi esperientziaren ia alderdi guztietan. Fenomenoaren intentsitate nabarmena eta izan duen hedapena, gaur egungo belaunaldi gehienentzat ezezaguna dena, osasunaren eta lanaren arteko



harremanek azaltzen dute neurri handi batean. Era berean, pandemia honen hedapenaren aurrean hartutako neurri soziosanitarioek eta haren ondorioek eragin berezia izan dute lanaren eta enpleguaren munduan, eta, horren ondorioz, lanaren esparruak areagotu, indartu eta luzatu egin du eragin hori gure eguneroko bizitzetan.

Fakultateko jardunaldiak eta hitzaldiak

Urriaren 8an, Gizarte Langintzaren XIII. Jardunaldia egin zen, **"Gizarte Langintza krisi anitzeko garaietan"** Urtero bezala, jardunaldi hori Arabako **Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialarekin** batera antolatu da. Oraingo honetan, jardunaldia online egin zen, eta honako hizlari hauek parte hartu zuten: Teresa Zamanillo, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko gizarte langile eta katedradun emeritua, eta Luis Nogués, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko gizarte langile eta irakaslea. Landutako gaia **"Hausnarketak, bertatik bertara"** izan zen. Bestalde, **"zenbait krisi berriri buruzko hausnarketan"** Kontxi Ruiz de Aretxabaleta gizarte langileak parte hartu zuen. Horrez gain, Silvia Espinosak ekarpena egin zuen **"hezkuntza sistemako gizarte arrakalari"** buruz hausnartuta. Halaber, **"doluan eta bizitzaren amaierako prozesuan laguntzeari"** buruz mintzatu zen. Jarraian, Celia Garrido gizarte langile eta berdintasun eragileak **"Genero indarkeriaren pandemia"** hitzaldia eskaini zigun, eta, José Manuel Ramírezek, Malagako Unibertsitateko gizarte langile eta Gizarte Laneko irakasleak, **"Autonomia pertsonala eta egoitzetako zaintza"** hitzaldiarekin lagundu zuen. Amaia Garcia eta Nerea Zubillaga doktorego aurreko ikertzaileek, eztabaida paraleloekin, eta Rakel Oion irakasleak, azken ondorioekin, jardunaldiko funtsezko ekarpenak jaso zituzten. Bukatzeko, Yolanda Frías gizarte langileak eta Álvaro González Langerica kazetari eta artistak parte hartu zuten.

Fakultateko atalak **"Dando vida a la muerte. Heriotza garrantzitsua delako"** I. Jaialdiko jardueretako batean parte hartu zuen. Ekitaldia **Vivir con Voz Propia elkartearen** eskutik egin zen, azaroaren 1etik 7ra. Jardueran, **"hil baino lehen, nahi dut..."** izenburua zuen mural bat jarri zen, eta hil baino lehen egin nahi duguna hitz gutxitan idaztera gonbidatzen zuen. Horren bidez, ekintza intimo bat gertakari publiko, komunitario eta dibertigarri bihurtu nahi izan zen.

Azaroaren 12an eta 13an (ostirala), **Gizarterako** elkartek ikasleentzako online ikastaro bat eman zuen: **"Prostitución: ¿Otra forma de violencia contra las mujeres? Una aproximación conceptual para la intervención social desde la perspectiva de género"** (Prostituzioa: emakumeen aurkako beste indarkeria mota ba? Esku hartze sozialerako hurbilketa kontzeptual bat genero ikuspegitik).

Azaroaren 12an "Administrazio publikoetako kontratuen klausula sozialak: genero berdintasunaren ikuspegia" izeneko online jardunaldia egin zen, Zuzenbide Fakultateak antolatuta, Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoako Foru Aldundia proiektuaren barruan. Jardunaldia Eider Larrazabal Astigarragak antolatu zuen, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideko alboko irakasleak eta gaian adituak. Gainera, egun horretan bertan, "lan harremanetan esku hartze kolektiborako espazio berriei" buruzko jardunaldia egin zen. Campuseko Errektoreordetzaren laguntza jaso zuen eta Lan Harremanen Kontseiluko presidente Tomas Arrieta Herasek antolatu zuen, "Genero-berdintasuna eta eskubide digitalak" izenburupean.


Azaroaren 25ean, arratsaldeko saioan, *Emakumeen aurkako indarkeria ezabatze*ko Nazioarteko Egunaren harira, Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultateko Berdintasun Batzordeak **"Emakume alargunak: Iparralde guztien hegoaldea. Zaurgarritasun soziala eta indarkeria ekonomikoaren errealitate ikusezina"** hitzaldia antolatu zuen. Edurne Aranguren eta Ixone Fernández de Labastida zentroko irakasle eta dekanordeek aurkezpene eta sarrera egin ondoren, "Emakumeen prekaritatea eta pobrezia: Genero sistemaren auzia" izeneko ekarpenarekin saioa abiarazi zuten. Jarraian, hitzaldi nagusiaren txanda izan zen, Maite Bilbaoren eskutik (FEVI -Euskadiko Emakume Alargunen Federazioko eta CONFAV - Hispaniako Emakume alargunen Federazioen eta Elkarteen Konfederazioko presidentea). Horren ostean, taldeko hausnarketa eta eztabaida egin ziren.

Bestalde, **2020/2021 ikasturterako Gizarte Langintzako practicumarekin lotutako mintegi profesionalak** egiten ari dira. Blackboard Collaborate plataformaren bidez egin dira, eta urtero egiten den jardunaldi profesionala ordeztu du. Mintegi horiek jarduneko profesionalak eta/edo Fakultateko irakasleak ari dira ematen, eta praxiarekin, Gizarte Langintza Graduako praktika prozesuekin eta gai teoriko batzuekin zerikusia duten hainbat gai lantzen ari dira. Horrez gain, Gizarte Langintzan gutxi landutako hainbat ekintza eremutara eta gaitara hurbiltzeko aukera ematen dute. Urritik abendurako lehenengo epe honetan, honako mintegi hauek egiten ari dira: **"La intervención desde las instituciones en tiempos de COVID-19 y la inclusión del alumnado en prácticas. Dificultades y retos"** (Erakundeek COVID-19aren garaian esku hartzea eta praktiketako ikasleak sartzea: zailtasunak eta erronkak), Gasteizko Udaleko Gizarte Politiketako Saileko gizart -langile eta

koordinatzaile nagusi Boni Cantero Sevillaren eskutik; **"Evaluación del "daño social" en violencia de género"** ("Kalte soziala" ebaluatzea genero indarkerian), Arabako Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateko gizarte langile Marta Simón Gilen eskutik; **"La Renta Básica Universal, un derecho de la ciudadanía"** (Oinarrizko Errenta Unibertsala, herritarren eskubidea), UPV/EHUko Gizarte Langintza Graduaren gainbegirale eta irakasle Miren Ariño Altunaren eskutik, eta, azkenik, **"La acción social en el ámbito socioeducativo"** (Gizarte ekintza gizarte eta hezkuntzaren esparruan) Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Gizarte langile Ángel Aceboren (Artatse HLHI) eta Arabako Lurralde Ordezkaritzako Gizarte langile Kris Jausoro Alzolaren (Berritzegune) eskutik.

Ikasgela berriak Fakultateko Arabako atalean

Vitoria-Gasteizko Fakultateko sotoa birmoldatu ondoren, bi gela berri sortu ahal izan dira. Eraikinak zuen garajea kendu da, eta biltegia eta artxiboa beste leku batera eraman dira. Horri esker, sotoan biltegi berri bat sortu da, eta mintegi berri bat (1. mintegia).



1. mintegia



6. gela

Gainera, ordenagailu gela kokatzeko gune bat sortu da; oraingoz lehenengo solairuan dago. Solairu horretan gela berri eta handia egin da (6. gela).